

KANPEZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRENTZAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA. 2026. URTEKO GASTU OROKORRAK ETA HERRIKO JAIK FINANTZATZEKO

Lehenengoa. Onuradunak.

Kanpezuko udalerriko administrazio-batzarrek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek, baldin eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean badituzte.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Kanpezuko Udalak emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta eskaera egiten den unean izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura amaitzea.

Ez dira onuradun izango Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatutako arau-hausteengatik zehatuak izan diren erakundeak, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotako kasuetan daudenak ere.

Bigarrena. Helburua

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen helburua da Kanpezu udalerriko herrietan tokiko jaiak ospatzeko funtzionamendu-gastu orokorrak ordaintzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.

2026eko martxoaren 16ko osoko bilkurako akordioaz onartuak; 2026eko ekainak 3ko 63. ALHAOeko argitaratua.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da administrazio-batzar bakoitzeko:

ADMINISTRAZIO BATZARRA	BANAKETA LINEALA	BIZTANLEAK	<u>TOTALA</u>
OTEO	2.260,10 €	147,15	2.407,25
BUJANDA	2.260,10 €	140,76	2.400,86



**Kanpezu
Campezo**

UDALA · AYUNTAMIENTO

ORBISO	2.260,10 €	486,25	2.746.35
SANTIKURUTZE	2.260,10 €	5.252,76	7.512,86

Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

Dirulaguntzaren eskabidea eta gainerako dokumentazioa deialdia ALHAOan argitaratzen denetik egin ahalko da eta, gehienez, 2026eko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira (egun hori barne).